



Los miembros del Jurado Oficial al completo.

Claire Denis, President of the Official Selection.

ALEX ABRIL

ULISES GUTIÉRREZ

## Zinemaren festara gonbidatuak

Aldatzen, aberasten eta liluritzen gaituen zinemaren gorazarrea izan zen atzoko Donostia Zinemaldiaren 71. edizioaren inaugurazio-gala. Eva Hache eta Gorka Otxoak aurkeztu zuten ekitaldia, baina laguntzaile prestu ugari izan zituzten erritmo biziko gala hegan emateko.

Dominic West aktoreak aurkeztu zuen FIPRESCI Sari Nagusia, eta erakundearen presidenteorde Rita Di Santok eman zion garaikurrari Aki Kaurismäkiren ordezkariari. Zuzendari finlandiarrak hirugarren aldiz irabazi du aitortza garrantzitsu hau bere azken lana den *Kuollet ledhet / Fallen Leaves* filmari esker.

Ondoren, Donostia Zinemaldiaren sail ezberdinak aletzen joan ziren hainbat gonbidatuk, hala nola, Kepa Errasti, Ane Gabarain, Sofia Otero, Dolores Fonzi, Telmo Irureta eta Bob Pop (galaren gidoilaria izan dena, galaren zuzendari Mireia Gabilondorekin batera). Cayetana Guillén Cuervok aurkeztu zuen Sail Ofiziala eta epaimahaikideak banan bana deitu zituen Kursaal antzokiko oholtzara. Epaimahaiaien presidentek, Claire Denis zuzendaria, hartu zuen hitza: "Epaimahaikide izatea erronka handia da, zinema jaialdi bat zerbait zirraragarria delako. Lehiakortasuna hain ga-

rrantzitsua ez den sormeneko leku bat da Zinemaldia. Zinemarekiko konpromisoak mugitzen gaitu eta hori izango da gidatuko gaituen espiritua", adierazi zuen.

Maria Berasarte eta Audience taldearen eskutik iritsi zen ekitaldiko unerik hunkigarrienetako bat, "Al alba" doinuarekin aurten zendu diren zinemagintzako profesionalak gogoan hartu zituztenekoa. Gernikako taldearen musikak dotore jantzi zuen gala, hasieratik bukaera arte.

Donostia Zinemaldiko zuzendari Jose Luis Rebordinosek aurtengo lehen Donostia Saria aurkeztu zuen segidan. Hayao Miyazaki maisuari buruz zera esan zuen: "Sortu dituen munduek eta pertsonaiek amesteko eta bere buruaren barrualdera bidaiatzeko bide ematen digute". Miyazakik igorritako bideo labur baten bidez eskertu zuen aitortza: "Eskerrik asko, Donostia Zinemaldia, izen handiko sari honengatik. Une honetan, egunero nago estudioan, Ghibli parkerako erakusketak sortzen. Espero dut filmarekin gozatzea". Jarrera, ikusleek *Kimitachi wa do iki ruka / The Boy and the Heron* inaugurazio-filmaren Europako estreinaldiaz gozatu zuten.

## El maestro Miyazaki abrió el telón del Festival

Tras el desfile de estrellas por la alfombra roja del Kursaal, un irrintzi y un desfile de joaldunak dieron la bienvenida a los asistentes a la gala con la que el Festival inauguró ayer su esperada 71 edición. Ésta estuvo dirigida por Mireia Gabilondo y presentada por Eva Hache y Gorka Otxoa cuyo arranque en euskera celebró "la unión de las culturas y las lenguas".

La estrella internacional Dominic West, conocido por sus papeles en series como *The Wire* o *The Crown*, se encargó de presentar el premio FIPRESCI, que este año ha recaído en la película *Kuollet ledhet / Fallen Leaves* del finlandés Aki Kaurismäki. Stefan Schmitz, director general de la productora y distribuidora Avalon se encargó de recoger el premio.

Posteriormente, caras conocidas del mundo del cine presentaron cada una de las secciones del certamen. Kepa Errasti, Ane Gabarain, Sofia Otero, Dolores Fonzi, Telmo Irureta o Bob Pop (quien también era guionista de la gala) fueron algunas de las celebridades que desfilaron por el escenario del Kursaal.

Después, la actriz Cayetana Guillén Cuervo dio entrada a los miembros del jurado de la Sección Oficial. En su discurso, su presidenta Claire Denis declaró que "un festival de cine es un lugar de creación donde la competición no es lo importante. A todos los miembros del jurado nos mueve el compromiso con el cine y será ese el espíritu que nos guíe".

El grupo musical de Gernika Audience se encargó de ambientar la gala con sus canciones en directo. Uno de los instantes más emotivos de la noche llegó cuando María Berasarte cantó "Al alba" en recuerdo de las personas recientemente fallecidas a quienes está dedicada esta edición: Manolo Pérez Estremera, Guadalupe Echevarría, Tito García Camino, Bérénice Reynaud, Jose Luis Rubio y Seve Sánchez.

La entrega del Premio Donostia al director de animación Hayao Miyazaki fue el colofón final a la velada. A través de un video remitido al Festival, el maestro japonés agradeció "este prestigioso reconocimiento". Acto seguido, el público disfrutó del estreno europeo de su último trabajo, *Kimitachi wa do iki ruka / The Boy and the Heron*.